

Azoka BERgara tzen



**Lehenengo sektorea biziberritzeko
ildoa**

2014ko Martxo eta Apirila.



1. SAIOA Martxoak 18

▪ Saioaren nondik norakoak.

Parte hartzaileen aurkezpen erronda bat egin ondoren, lehen sektoreko lan taldearen egitasmoa aurkeztu da:

Alde batetik, Oxirondo azokaren eta herriko ekoizleen arteko lotura indartzera zuzendutako lanketa. Azoka herriko ekoizpenaren merkaturatze zuzenerako gune nagusia izanik, beharrezko ikusten da erlazio honen gaineko hausnarketa batetik abiatzea, ondoren ekintza plangintza egingarri bat adosteko.

Hausnarketa horretarako, Azoka Bergaraten prozesuaren herri aurkezpen saioan jasotako proposamenen irakurketatik abiatu da.

Bestalde, azoka espaziotik haratago, sektorea biziberritzeko eman beharreko pausuak adostea ere lan ildo honen helburua izango da. Debagoieneko Lehen Sektorea biziberritzeko eskualde mailako proiektu estrategikoa ari da garatzen mankomunitatetik, eta Bergarako udalak ere parte hartzen du proiektu horretan. Hori dela eta, lanketa horretan herriko errealitateak identifikatutako behar, eskaera, zailtasun, oztopo eta bestelakoak txertatzea interesgarri ikusten da, bi prozesuok elkar koordinaturik garatu daitezten.

Hurrengo lan saiorako, aipatu beharrak, eskaerak, zailtasunak, oztopoak, etab. identifikatu eta horien gainean hausnartzeko eskatu da, horretarako denbora tartea utziz. Gauzak horrela, lehenengo saioan herriko ekoizleen eta Azokaren arteko erlazioa indartu eta areagotzeko proposamenen lanketa egin da.

▪ Lehen Sektorearekin lotutako aurkezpen saioko proposamenak.

- Gure sustraietarako (lehen sektorea, tokikoa, sasoikoa...) bueltatze bat antzematen zaio, bizi dugun momentuan garrantzitsua dena.
- Baserritarrek (ekoiztu eta saltzen dutenek) salmenta zuzena egin dezatela. Bitartekaririk gabe izan beharko litzateke.
- Zuzeneko, bertako eta kalitatezko produktuak?, Batzuk ekoizle edo banatzaile dira?. Zuzenean bertakoa den eta kalitatezko bezala ezagutzen dugun produktu eta zerbitzuak berez balio gehigarri asko dauka. Baina hau erosleari transmititu beharko litzateke. Azoka herrira gerturatzea.
- Baserritarrak: gehienak langintzatik alde eginda ditugularik, gutxi gelditzen zaigu beraiengandik ikasteko.

- Tokian tokiko produktuei, sasoikoei eta baserritarrek sortutakoei lehentasuna emango nieke bertan.
- Baserritar gehiago ikustea gustatuko litzaidake.
- Azokako baserritarren artean lotura sortzea.
- Astean zehar baserritarrak joatekotan arratsalde izan beharko litzateke, goizetan jendea lanean dago.
- 1. sektorea zaila astean zehar egotea.
- Azoka ez izatea salmentarako lekua bakarrik; baserritarren mundua, honen garrantzia, jendea elikatzearen baloreak bertan presentzia izatea nahiko nuke.
- Merkataritza ikuspuntutik ikusita, gure baserritarren eta nekazarien produktuak saltzeko gunea. Gure produktuak (garestiagoak) Vs. Merkeena (edozein lekukoa). Azoka Vs. Gune komertzialak.
- Kanpoan baserritarrak libre saltzen ibiltzen dira.
- Begiekin jaten dugu, ez kalitatea baloratuta.
- Bertako ekoizpen gutxi dago, eta mundu globalizatu batean bizi garela ulertu beharra dago.
- Hilabetero barazki/fruta baten hilabete berezia izendatu.
- Pintxopotea bertako produktuekin.
- Barazkiak prestatzen ikasteko ikastaroak.
- Esne makina jartzea.
- Astean zehar, arratsalde batean baserritarrak joatea. Azokara joateko arrazoia beraien baitira gehienbat.
- Postu gehiago zabaldu. Aukerak eman prezio aldetik. Baserritarrak gehiagotan etor daitezela. Kontsumo taldeak merkatu barruan errepertua egitea.
- Eskaintza garbia: jendeari ezagutarazi bertan aurki daitekeen produktua.
- Produktuen jatorriaren gaineko informazioa garatzea.
- Bertako produktuen merkaturatzea bultzatu.
- Ekoizle gazte batzuk prezioak jarrita dituzte.
- Bertako produktuen balorizazioa.
- Ekoizleek beraien eskaintza gehiago landu beharko lukete. "buelta" eman beraien eskaintzari (postuaren itxura, presentzia, informazioa...).

▪ Jasotako ekarpenak.

Aurkezpenean, oso izaera ezberdinetako proposamenak jaso ziren: kontsumitzaileei zuzenduak, udalari zuzenduak, azoka eraikinaren ingurukoak eta baserritarren gainekoak. Kasu honetan, azken proposamen horietatik abiatu gara.

OXIRONDO AZOKA eta BERTAKO EKOIZLEAK.

- Kontsumo taldekoek, hasieratik planteatu zuten arren, ez dute argi ikusten banaketa azoka barruan egitearena.

- Barruan, jende eta mugimendu gutxi dagoen heinean, azokako dendarien begiradapean egitea ez dela oso eroso baloratu zuten taldeko kideek.
- Azokan lokala izateko aukera ere badute, baina ez dute horren beharrik. Banaketa zuzena egiten dute, ordubete inguru egoten dira taldekideak bilduta eta banaketa egitearekin batera solasean aritzeko aprobetxatzen dute. Norbait ezin bada otarraren bila joan, ekoizlearekin beste momentu batean gelditzen da, baina oso gutxitan gertatzen zaie hori. Euria izan arren, kanpoan elkartzen dira arazorik gabe.
- Beste edozein ekintza egiteko ere, nolabaiteko diskrezioa bermatzea komenigarria litzateke (adib: bionbo batzuk jarrita).
- Azoka eta bertan egitera doazen ekintzen komunikazioa asko zabaldu beharra dago, orokorrean jendeak larunbat goizarekin lotzen du azoka.
 - Ezagutaraztera eman behar da, jendeak barneratu dezan bertako eskaintza eta bertaratzeko bidea.
- Bergarako ekoizleen produktuen bateratzea: Aramaioko ekonomatoaren antzera, bertako produktuak egunero erosgai egongo diren gun bat.
 - Aztertzeke gai bezala aipatu da.
- Azokan produktuen prezioak jartzeko aukera planteatu da, eta orokorrean harrera ona izan du proposamenak.
 - Halere, galdetzeko ohitura berreskuratzea beharrezko ikusi du bakarren batek.
 - Erosteke moduak zalantzan: kontsumitzaileak egokitu behar dira baserriarren ohituretara, ala baserriarrak beraien erosle berrietara?

Azoka egun bat astean zehar arratsaldez egiteko aukera.

- Ekoizleak azokara astean zehar gerturatzeko saiakera aurretik ere egin zela aipatu da, baina taldekoen artean desadostasunak sortu zirela.
 - Batzuk dieta eskatu, besteak tasaren gaineko hobaria, eta beste batzuk norberaren ardura dela egotziz, ez ziren adostasun batera iritsi.
- Froga egiteko aukera positiboki baloratu da. Saioan parte hartu dutenek, astean zehar azokan parte hartzeko konpromezua hartu dute.
 - Asteazken arratsaldea planteatu da egun egokiena bezala.
 - Lore saltzailea ere asteazken arratsaldez egoten da azokan, eta mugimendu gehiago nabari da gainerako egunekin alderatuz.
- Dena den, beharrezko ikusten da ekintza osagarriak egitea, eskaintza handitze aldera eta erakargarritasuna bilatuz:
 - Ipuin kontalariak
 - Dastaketak
 - Ikastaroak (sukaldaritza, ontziratzea, etb.)
 - Errezetak eskaintzea
 - Poltsak diseinatu eta egitea
 - Lorezaintza ikastaroa (Maiatzean egingo da udaletxetik)

- Ekoizleentzat merkaturatze teknikak erakustea (oinarrizko marketing ezagutzak adibidez)
- Panel informatiboak: sasoian-sasoiko produktuak, etab.
- Landare aromatikoak erabiltzeko ikastaroa (lehortu, erramuak egin, deribatuak egin....)
- Ekintza osagarrietara begira, diru-laguntzak jasotzen dituzten herriko talde desberdinei konpromisoa eskatzea beraien ekintzak azokara gerturatzeko.
- Herriko beste eragile batzuekin elkarlanean egin beharko da.
- Ekaina, uztaila eta abuztuko hileko lehen asteazkenean Bergarako baserriarren azoka (arratsalde 17:00etatik 20:00etara edo 18etatik 21:00etara, zehazteke) egitea proposatuko du lan talde honek.
 - Garai ona da, produktu eskaintzari dagokionez.
 - Honetarako tasak ez kobratzea eskatu da: Bergarako baserriarrentzat doan izatea.
- Jakina da hasieran kostako dela, baina irailetik aurrera jendea egoteko, beharrezkoa da aurretik hastera, jendea poliki-poliki ohitura hartuz joan dadin.
- Hurrengo bilerarako, asteazkenetako azoketan parte hartzeko proposamena luzatuko zaie herriko beste ekoizle batzuei.
 - Ikusiko da zenbat azaltzen diren prest, eta horren arabera baloratuko da nola osatuko den azoka.
 - Bestalde, apirilaren 8ko bateratze saioan bilatuko da lankidetzaren herriko beste eragile batzuekin.

Bestelako proposamenak.

- Pintxo-poteo bat bertako produktuekin egiteko aukera: tabernariekin elkarlanean aztertu beharreko gaia.
 - Merkataritza mahaiaren bitartez bideratuko da.

SEKTOREA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIARI BEGIRAKO EKARPENAK.

Puntu honen lanketa hurrengo saiorako utzi den arren, hainbat kontu aipatu dira.

- Azokan postua jartzeagatik tasa ordaintzen dute Bergarako ekoizleek.
 - Bailarako gainerako herrietan, ez dute ordaintzen edota Oñatiren kasuan adibidez dieta jasotzen dute.
 - Doan izatea eskatzen dute.
- Lehen sektorean, ura behar-beharrezkoa da eta udaberri-uda partean gehiegizkoa da kostua errekatik edo manantial batetik hartu ezin duten nekazari eta abeltzaintzat.
 - Beharrezkoa da neurriak hartzea.

2. saioa Apirilak 1

▪ Saioaren nondik norakoak.

Parte hartzaileen aurkezpen erronda bat egin ondoren, lan ildo honen kokapena egin da, lehen saioko laburpen bat eginez eta saio honetako helburuak finkatuz.

Hasteko, lehenengo bileran jasotako proposamenak ordenatzen eta zehazten saiatu gara. Ekaina, Uztaila eta Abuztuko lehenengo asteazkenetarako proposatutako baserritarren azokaren antolaketa egon da mintzagai. Azoka horretara gerturatu daitezkeen baserritar berriak identifikatzeaz gain, azoka egun hori nola ezagutarazi eta zabalkundea eman, eta ekintza osagarriekin janzteko proposamenak egin eta adostu dira.

Ondoren, azoka espaziotik haratago, sektoreari eta baserritarren jarduerari eragiten dioten egoera, baldintza eta udal-araudien inguruan jarduteko aukera izan da, aurreko bileran egindako gonbitearen ondorioz. Jasotakoak mankomunitate mailan garatzen ari den ekimen batera zuzenduko dira, eskualde osoko udalak egiten ari diren lanketa bateratuan kontuan har daitezzen ahal den neurrian.

▪ Jasotako ekarpenak.

OXIRONDO AZOKA eta BERTAKO EKOIZLEAK.

- Ekainak 4ko azoka.
 - o Dastaketa bat egitea adostu da.
 - Ze produktuekin egitea ez da adostu, neguko produktuak bukatzen izango baitira, eta udakoak oraindik kopuru txikian izango direlako.
 - Babak, idarrak, edota bertako haragia sartzea proposatu da.
 - Bergarako sukaldariren bati dastaketa zuzenean prestatzeko aukera proposatu da (adib: Alberto Samaniego). Bestela elkarte gastronomikoen bitartez egitea izango da bigarren aukera.
 - o Ekoizle eta baserritar gehiago identifikatu eta gonbitea luzatzea adostu da. Ogia, gazta edota ezta ekoizten duten ekoizleak gonbidatzea erabaki da, produktu eskaintzan aukera aniztasuna bilatu asmoz.
 - o Asteazken goizetan egoten den lora saltzailea prest agertu da arratsalde geratzeko.
 - o Garaiko produktuen errezetak bilatu eta banatzea adostu da, azokara gerturatuko diren herritarren artean banatzeko.

- Araudia aztertu beharra dagoela aipatu da, larunbateko postuekin egindako kontratuek horrela jasoz gero, asteazkenetako azoka bergarako ekoizleez gain beste batzuekin bete daitekeelako.
- Sentsibilizazio eta zabalkundea:
 - Informazio panelak:
 - Panelak egitea adostu da
 - Bai kanpoan eta bai barruan jartzea komenigarria dela adierazi da.
 - Zati bat finkoa izan daiteke, urtaro guztietako produktuen informazioarekin eta baserriko bizitzaren inguruko informazioarekin. Eta beste zatia, urtaroka aldatuko litzatekeen informazioz osatua.
 - Tolosako azokan hilabete bakoitza produktu bati lotzearen ekimena dutela aipatu da, panela konfiguratzerako orduan kontutan hartzeko.
 - Biolurrek urtaro bakoitzeko sasoiko produktuekin egindako informazioak batuko dira LGEaren eskutik
 - Panelaren diseinua egitea BEARTi eskatzea proposatu da, baina maiatzean zehar prest egon beharko litzakeenez, ez da argi ikusten denbora emango ote duen.
 - Esku-orriak:
 - Etxez-etxeko zabalkundea egitea proposatu da udaletik.
 - Asteazkenetarako adostu den azoka, eta udaletik edota beste eragile batzuegandik antolatutako lehenengo sektorearekin zerikusia duten ekintzak bertan txertatzea proposatu da. Ahal bada, urte osorako egutegia egiteko.
 - Bergaran ekoizpena duten baserriar edo ekoizle guztiekin zerrenda bat egitea proposatu da esku-orrian agertu dadin. Beraien kontaktua batuko da, nahi duenarentzat azokaz gaindiko zuzeneko salmenta ere bultzatzeko.
 - Azokako postuen zerrenda egitea ere proposatu da. Bertaratzen den baserriar bakoitzak dituen produktuak zerrendatuz.
 - Poltsak:
 - Udala poltsa berrerabilgarriak egitearen aldeko azaldu da.
 - Poltsako leloan AZOKA hitza agertu beharko litzatekeela adostu da.
 - Azoka Bergaratzen, Gure Azoka edota Betikoa eta garaikoa kontsumituz izan dira aipatutako lelo batzuk.
 - Merkaturatze tekniketari formakuntza:
 - Maiatzean zehar formakuntza sesio bat egitekotan geratu gara, produktuak aurkeztu eta saltokia prestatzeko tekniken inguruan.
- Uztailak 2, abuztuak 6 eta irailak 3ko azokak.

- Jexus agirre, San Juango Auzo-alkatea prest agertu da xaboi ikastaro bat egiteko, baina ekainean ezin duenez uztailean egitekotan hitz egin da.
- Beste azokak antolatzen joateko beharra aipatu da.
- Azokaren apainketa:
 - Baserriko erreminta eta bestelako gaiekin erakusketa egitea proposatu da.

SEKTOREA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIARI BEGIRAKO EKARPENAK.

- Lehen sektorean, **ura** behar-beharrezkoa da eta udaberri-uda partean gehiegizkoa da kostua errekatik edo manantial batetik hartu ezin duten nekazari eta abeltzaintzat.
 - 2 gairen inguruko lanketa sakona behar da:
 - Uraren kalitatea.
 - Uraren prezioa.
- **Osasun ziurtagiriak** zailtasun handia dira, ekoizle txikienetik hasi eta enpresa handienerarte betebeharrak berdina direlako. Europatik datozen legeak izanik, ez da ulertzen Frantziak ematen dituen erreztasunak, eta aldiz Espainiako zailtasunak (madrilen erabakitzen bait dira neurri hauek).
 - Udaletxetatik hasi eta goranzko administrazioetara inzidentzia politikoa egitearen beharra aipatu da.
- **Txabolen tamaina:** askotan ez da nahikoa izaten animalientzat. Txoko ez bihurtzeko pentsatutako neurria da, baina abeltzaintzarako oso murriztailea.

3. SAIOA Apirilak 15

▪ Saioaren nondik norakoak.

Behin azokara begirako lanketatik, hilabeteko lehen asteazkeneko azoka egitearen akordioa lortu ondoren, Bergarako lehenengo sektorea biziberritzeko lanketa hasiko dugu bigarren fase honetan.

Saioaren lehenengo zatian, asteazkenetako azokara begira, udaletik bultzatutako panel eta esku-orrien diseinuaren inguruan eztabaidatu dugu.

Eta bigarren zatian, sektorea biziberritzeari begira, sortutako taldeak hemendik aurrera eman beharreko pausuak adosten saiatu gara.

▪ Jasotako ekarpenak.

A. OXIRONDO AZOKA: Hilabeteko lehenengo asteazkenetako azokarako panel eta eskuorriak

- Udaleko ordezkariak, poltsa berrerabilgarriak bideratzen ari direla aipatu dute. Horretarako teknikariak lanean ari dira.
- Eskuorria eta panela:
 - o Azokan erosteko arrazoien dekalogoak:
 - Tolosako azokako webgunea aipatu da. Bertan, azokan erosteko 9 arrazoi jasotzen baitira (ikus 1. Eranskina)
 - Bergararako moldatzea erabaki da, 10 arrazoiko dekalogo bat osatu arte. Dekalogo hau eskuorrian eta panelean jartzea erabaki da.
 - Dekalogoak panel handi baten azokako fatxadan jartzea proposatu da, urrunetik ikusi eta jendeari deigarri izan dakion.
 - o Sasoiko produktuen zerrenda:
 - Biolurrek sasoi bakoitzeko produktuak jasotzen dituen taula bat duela aipatu da (ikus 2. Eranskina)
 - Taula bera moldatu edota zerrenda moduan sasoiko produktuak eskuorrian eta panelean txertatzea erabaki da.
 - o Ekoizleen zerrenda:
 - Eskuorrian bergarako ekoizleen zerrenda txertatzea erabaki da. Bakoitzaren alboan, ekoizten dituen produktuen zerrenda eta salmenta puntu edo bideak jartzea erabaki da (azoka, kontsumo taldea, salmenta zuzena...). Bakoitzaren kontaktua txertatu beharra aipatu da herritarrak produktuak erosteko aukera izan dezaten.
 - Ekoizleekin kontaktuan jarri beharra adierazi da, zerrenda osatze aldera eta bertan agertuko direnen oniritzia lortzeko asmoz.
 - Hauek Ekoizle erregistroan izen ematearen garrantzia aipatu da, salmenta legalki egiteko asmoz. Erregistro honetan izena emateak inongo inplikaziorik ez duela aipatu da, eta nolabait ekoizleen aktibitatea erregulatzeko balio duela.
 - o Maiatzak 7rako esku-orrian eta panelean azalduko den informazioa erabakita egon beharko litzatekeela adostu da, gerora diseinua zehaztu eta Ekainak 4ko lehenengo azokarako dena prest egon dadin.
- Beste gai batzuk:
 - o Asteazkenetako azokan, irailean balorazioa egite aldera, bezero eta erosleen iritziak batzea komenigarria litzatekeela aipatu da. Beste gai batzuren artean, asteroko maiztasuna nola ikusiko lukeen galdetzea litzateke helburua.
 - o NIREA akordioa aipatu da, hiri eta landa guneen arteko lotura sendotzeko ekimena <http://www.nirea.info/>

B. LEHENENGO SEKTOREA BIZIBERRITZEA

- Hilabeteko lehenengo asteazkenetako azoka adosteaz haratago, talde honen helburuen inguruan hausnartzen saiatu gara.
- Sektorearen errealitateak abiatuta eta Sektorea biziberritzeko helburuak adoste aldera, lan ildo desberdinak aipatu dira, ildo bakoitzaren ezaugarriak errespetatu eta berariazko beharrei erantzuteko asmoz.
 - o gaur egun dauden ekoizleak indartzea
 - o jubilatzean dauden ekoizleen erreleboa bermatzea
 - o sektorerako ekoizle berrien sarrera sustatzea
- Ekonomikoa eta sentsibilizazioa identifikatu dira alderdi garrantzitsuenak moduan. Merkaturatzearen inguruan hainbat gai aipatu direlarik.
 - o Oraingo ekoizleak "mimatu" beharra dago, ekoizpena utzi ez dezaten, eta horretarako salmenta bermatzea beharrezkoa da.
 - o Bailarako ekoizpen eta kontsumoaren egoera aipatu da, non kontsumitzen den dena ekoizteko gaitasunik ez dagoen, baina bestalde ez da saltzen bailaran ekoiztutako guztia.
 - o Ohituren aldaketa aipatu da, arrazoi garrantzitsuenetako bat bezala. Jendeak ez diogu denborarik dedikatzen erosketak eta bazkariak gertatzera.
 - o Honen ildora, erosleek behar desberdinen aurrean, ekoizleak ere nolabait egokitu eta eskatutakoa eskaini beharra aipatu da (produktu eraldatuak edo formatu desberdinetan: garbiak, poltsatan, sortak)
 - o Janari azkarra, eta eraldatuta dauden jakien zabalkundea ere aipatu da eta produktu hauen prezio altuak ordaintzeko arazorik ez dagoela. Kontran, baserriko produktuak garestiak direnaren sinesmena oso hedatua dagoela aipatu da.
 - o Prezioen duintasuna aipatu da. Ekoizleek beraien produktu eta lanarengatik ordainsari egoki bat lortzearen beharra. Zoritxarrez, prezioak merkatuak ezartzen ditu, eta beharrezkoa da herritargoa sentsibilizatzea supermerkatuko eta ekoizleen prezioen arteko desberdintasunaren jatorriaz.
 - o Irabazia salmenta zuzenean dago. Azokak, egoitzak eta jantokiak eta kontsumo taldeak aipatu dira. Kontsumo taldeena aipatu da biderik egokiena moduan. Erosleak baserriarari otarra urtebetez erosteko konpromisoa duen heinean, baserriarrek urteko ekoizpenaren salmenta bermatuta du, hala nola diru-iturri finko bat.